

ELGOIBARKO JATORRI ASKOTARIKO HERRITARREN BIZIPEN LINGUISTIKOAK ETA EUSKARAREKIKO DITUZTEN PERTZEPZIOAK

Ekhine Eizagirre Zubiaurre

Saioa Iraola Urkiola



Gotzon Garate
ikerketa bekaren IV. deialdia, 2022.

Argitaratzailea: **Elgoibarko Udala**
Testuak: **Ekhine Eizagirre eta Saioa Iraola**
Maketazioa eta irudiak: **limoiura.com**
Inprimaketa: **GERTU**
Lege gordailua: LG D 218-2023
ISBN: 978-84-09-49894-9



AURKIBIDEA

ATARIKOA	4
METODOLOGIA	5
EMAITZEN ANALISIA	7
Elkarrizketatuen aurkezpen laburrak	7
Bizi baldintzak eta migrazio testuingurua	10
Txirikordatutako zapalkuntzak.....	12
Hizkuntza erradiografia	16
Hizkuntzaren erabilera	20
Bizipen linguistikoak	23
Hizkuntzari atxikitako balioak	27
Hizkuntza ideologiak	29
Proposamenak eta erronkak	31
ONDORIOAK ETA AURRERA BEGIRAKOAK	33
BIBLIOGRAFIA	35

ATARIKOA

Ikerketa hau, Elgoibarko Udalak 2022. urtean zabalduko Gotzon Garate bekarekin egin dugu. Zortzi hilabetetan taxututako lan honetan, Elgoibarko jatorri askotariko herritarren bizipen linguistikoak eta euskararekiko dituzten iritzi eta sentipenak izan ditugu aztergai. Hurbiltze berri honen bitartez Elgoibarko herriaren argazki osatuago bat azaldu nahi dugu, ahotsa eman bertara bizitzera etorri diren jatorri askotariko herritarrei eta gertutik ezagutu zein diren beraien errealitate, behar eta bizipenak. Azterketa kualitatiboa izaki, adin tarte, genero eta jatorri desberdinetako hamabi pertsonari elkarrizketa sakonak egin dizkiegu.

Bizipen linguistikoak hobeki ulertu edo ezagutzeko gakoa izan da elkarrizketatuen bizi baldintzak, testuinguruak, zapalkuntza zein pribilegio egoerak¹ eta hizkuntzen erabilerak ezagutzea, horiek guztiak estuki lotutako aldagaiak baitira eta elkar eragiten baitute. Horregatik jakin nahi izan dugu nolakoak izan diren elkarrizketatuko lagunek bizitako migrazio prozesuak, zerekin to-

patu diren Elgoibarrera iristean, zein helduleku, harreman sare eta bizimodu eraiki dituzten bertan.

Esku artean duzuen egindako ikerketa lan osoaren sintesia da. Bertan, ikerketa egiteko baliatu dugun metodologia laburki azaldu eta analisisan jasotako ideia azpimarragarrienak josi ditugu. Amaitzeko esan, antropologia feminista eta epistemologia dekolonialetatik azken hamarkadetan egindako ekarpen teorikoak izan ditugula ardatz lan hau idazterako orduan.


Esan bezala, ikerketa honen muina izan da entzuketa aktiboa egin eta bizipen zein pertzepzioak identifikatzea eta multzokatzea. Horiek ulertuz eta aitortuz, aukera berriak sortuko dira gurean sustatzen diren hizkuntza politikak eta euskara biziberritzeko dauden proiektu eta baliabideak indartzeko. Amaitzeko, esan nahi genuke, hamabi elkarrizketa hauek ezin dituztela bere osotasunean Elgoibarren bizi diren jatorri askotariko herritarren bizipen linguistiko eta pertzepzioak ordeztu. Era berean, kontakizun bakoitzak du bere balioa eta, aurrez, gaiaren inguruan egindako ikerketa kuantitatibo zein kualitatiboei egindako ekarpen gisa aurkeztu nahi dugu.

¹ Kokapen edo egoera horiek ez dira estankook eta betierekoak. Testuinguruaren arabera aldakorrak izan daitezke.

METODOLOGIA

Ikerlan hau 2022ko maiatzetik 2023ko urtarrila bitarte egin dugu. Baliatu dugun metodologia kualitatiboa izan da, eta el-karrizketa sakonak izan ditu oinarri. Guztira, Elgoibarren bizi diren 18 eta 60 urte bitarteko jatorri askotariko 12 pertsona el-karrizketatu ditugu; horietako batzuk, kafe baten bueltan eta, beste asko, herritik oinez, paseoan. Etnografia ibiliz egiteak, informatzaileak bere ingurunea nola hautematen duen eta eguneroko praktikak nola garatzen dituen ezagutzeko aukera ematen digu.

Elkarrizketatuak hautatzerako orduan, hiru aspektu hartu ditugu kontuan: jatorria, adina eta generoa. Horretaz gain, sorle-kuan hitz egiten zituzten hizkuntzei eta gaur egun Elgoibarren bizitzen daudela hitz egiten dituztenei buruzko oharrak ere hartu ditugu. Azkenik, aipatu nahi genuke, protagonista denak izen anonimoekin ageri direla ikerlanean. Hona hemen elka-rizketatu bakoitzarekin osatu dugun taula:



DATU BIOGRAFIKOAK**HIZKUNTZA BIOGRAFIA**

ELKARRIZKETATUAK	SEXUA	ADINA	JATORRIA	SORLEKUAN	ELGOIBARREN EUSKAL HERRIAN
Cian	Gz.	44	Irlanda	Ingelesa	Gaztelania / Euskara (hitz gutxi batzuk) / Gaelera (hitz gutxi batzuk)
Marco	Gz.	46	Italia	Italiera	Gaztelania / Ingelesa / Euskara
Patxi	Gz.	28	Albania	Albaniera	Gaztelania / Ingelesa
Anne	Em.	44	Errumania	Errumaniera	Gaztelania / Ingelesa / Italiera
Ana	Em.	38	Maroko	Arabiera / Berberera	Gaztelania / Euskara (hitz gutxi batzuk)
Fatima	Em.	22	Maroko	Arabiera / Berberera	Gaztelania / Euskara (hitz gutxi batzuk)
Sekou	Gz.	25	Mali	Bambara / Soninkea / Wolofa (Maila apalagoa)	Gaztelania (Maila apalagoa) / Frantsesa (Maila apalagoa)
Angie	Em.	32	Nikaragua	Gaztelania	Gaztelania
Aroa	Em.	46	Dominikar Errepublikar	Gaztelania	Gaztelania
Lekuona	Gz.	58	Argentina	Gaztelania	Gaztelania / Euskara (hitz gutxi batzuk)
Ling	Em.	40	Txina	Mandarin txinera / Kantonera	Gaztelania
Shahid	Gz.	34	Pakistan	Urdua / Punjabera	Gaztelania / Euskara (hitz gutxi batzuk)

EMAITZEN ANALISIA

Elkarrizketatuen aurkezpen laburrak

Cian (Irlanda)

Cianek berrogeita lau urte ditu, eta urteak daramatza Elgoibarren bizitzen. Ostalari-tzan egiten du lan. Duela hogeita bi urte Erasmus egiten zebilen neska bat eza-gutu zuen Irlandan. Astebete pasatzera Elgoibarrera etorri zen, neska bisitatzera, baina egonaldia luzatu, eta bertan gera-tzea erabaki zuen. Bidaiatzea gustatzen zaio, gauza lokalak ezagutzea, baita *Net-working*-a praktikatzea ere.

Marco (Italia)

Marco italiarra da, berrogeita bost urte ditu, eta bederatzi urte daramatza Euskal

Herrian bizitzen. 2013an etorri zen fami-liakoekin Elgoibarrera, emaztea bertakoa baitu, eta, egun, bertan baserri-landetxe batean bizi dira. Hantxe egiten du lan logelak turistei eskaintzen. Bi seme-ala-ba ditu. Naturazalea eta mendizalea da, eta denbora duenean mendira joaten da. Nobelak irakurtzea ere maite du. Elgoiba-rren “Baso biziak” izeneko elkartean parte hartzen du.

Patxi (Albania)

Patxi Albaniakoa da, hogeita zortzi urte ditu, eta Elgoibarren bizi da. Zaletasun asko dituela esan digu, adibidez, musi-

ka, festa, lagunekin ateratzea, bidaiatzea, jendea eta kulturak ezagutzea gustatzen zaio. Momentu honetan lanik gabe dago, baina aurki hastekoa da lanean. Sukal-daria da eta bost urte eta erdiz Galizian, eta urte erdiz, Zumaian aritu da sukaldari lanetan. Orain, lanbidez aldatuko du eta metalgintzan tornu zein fresatzeko maki-nekin hasiko da lanean.

Anne (Errumania)

Annek berrogeita lau urte ditu eta erru-maniarra da. 2008ko urri amaieran iritsi zen Gipuzkoara, senarraren ondoren, Errumanian zituzten hainbat zor kitatze-

ko xedez. Beasainera joan ziren lehenik bizitzera, eta han egon ziren 2009ko uz-tailera arte. Egun, Elgoibarren bizi dira haurra, senarra eta hirurak. Ile apainketa ikasketak ditu eginda, baina, gaur egun garbiketa enpresa batean dabil lanean. Elgoibarko Lila emakumeen etxean parte hartzen du.

Ana (Maroko)

Ana marokoarra da, hogeita hemezortzi urte ditu eta hogeitaz hamar urte daramatza bere jaioteritik kanpo. Hemezortzi urterekin guraso eta anai-arrebekin Andaluziara bizitzera joan zen. Hogeita sei urterekin, Malagan, kontratu gabe lanean egon zen barneko etxeko langile modura. Dagoneko, bederatzi urte egin ditu Elgoibarraren bizitzen. Hiru haurren ama da eta, senarra eta seme-alabez gain, ez du beste familia kiderik herrian, baina lagun asko egin ditu ikastaroetan. Loreak elkartean ere parte hartzen du.

Fatima (Maroko)

Fatimak hogeita bi urte ditu, marokoarra da, eta bi urteko seme bat du. Marokon fisikako batxilergoa ikasi zuen. Horri lotuta, fisika, kimika eta matematikak asko gustatzen zaizkiola esan digu. Bere senarra Elgoibarren bizi zen gaztetatik. Marokon ezkondu ziren, eta bera ere senarrarekin Euskal Herrira etorri zen, Elgoibarrera, zuzenean. Sukaldean aritzea gustatzen zaio, baita hizkuntzak ikastea ere. Egunerokoan, semeaz arduratzen da eta *Zabaltzen*² elkartean parte hartzen du.

2 *Zabaltzen-Sartu erakundea, irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da. Gizartean desabantailan dauden pertsonen laneratzeko eta gizarteratzeko erraztasunak ematea da erakunde honen helburua, betiere, beraiek hala eskatzen badute. Horretarako, funtsezkoa da bai pertsonekin lan egitea, baita inguruarekin lan egitea ere, gizarte eta lurralde inklusiboagoak eraikitze aldera. Elkarteak Elgoibarren, Berrizen, Durangon eta Amorebieta Etxanon ditu bulegoak.*

Sekou (Mali)

Malikoa da eta hogeita bost urte ditu. Hamabi urterekin pateraz iritsi zen Espainiara. Zazpi egun egin zituen pateran bidaian, eta bidaia oso bide gogorra izan zela esan digu. Alde egin zuenetik, hamahiru urte igaro dira, eta ezin izan du Malira bisitan itzuli. Hobeto bizitzeko etorri zen hona, baina hemengo bizitza ez dela batere erraza onartu digu. Zein zaletasun dituen galdetuta, futbola gustatzen zaiola esan digu, eta aurrera begira bizimodu ona duela amets.

Angie (Nikaragua)

Angie Nikaraguakoa da, eta hogeita hamabi urte ditu. Duela bederatzi urte iritsi zen Elgoibarrera behar ekonomikoak bultzatuta. Nikaraguan oso pobreak zirela esan digu. Bi seme-alaba dauzka, bederatzi eta hiru urtekoak. Iritsi berritan, haurdun egonda, ez zuen lanik lortu, baina laguntza bat eskuratu zuen, eta horrekin atera zen aurrera. Egun Nikara-

guatik iritsi berri den ilobarekin eta bere bi seme-alabekin bizi da pisu batean. Nikaraguara joatea gustatuko litzaiokoe, familia bisitatzera.

Aroa (Dominikar Errepublika)

Aroa, jatorriz, Santo Domingokoa da, berrogeita sei urte ditu eta bost urteko haur bat. Hogeita zortzi urterekin Madrilerira iritsi zen lehenik, etxeko langile gisa kontratu bat egin ziotelako. Lau urte beranduago, lagun batek animatuta, Elgoibarrera heldu zen. Iritsi eta hurrengo egunean lan elkarrizketa bat egin eta, segidan, taberna batean lanean hasi zen. Haurra eta lana tarteko, ez du aisialdirako denborarik, baina, kirolzalea da eta beisbolera eta boleibolera jokatzera gus-tatzen zaio.

Lekuona (Argentina)

Lekuonak berrogeita hemezortzi urte ditu. Bere aitona Antzuolakoa zen, eta, familia, Eibar, Bergara eta ingurukoa. 2003ko ekainean hiru hilabete pasatzera etorri zen Euskal Herrira. Ostiral batean iritsi zen eta astelehenean, jada, lanean ari zen Zarauzko taberna batean. 2008tik hona, aluminio galdategi batean dabil lanean, eta Elgoibarren bizi da. 2005ean, bertako emakume bat ezagutu zuen eta hamahiru urteko alaba bat dute elkarrekin. Landa eremua eta natura maite ditu eta baratzea lantzen du.

Ling (Txina)

Familia kideekin batera Txinatik etorri zen 2000. urte inguruan bizimodu hobe baten bila. Madrilan, Katalunian eta Bilbon bizi izan da. 2007az geroztik, Elgoibarren bizi da eta negozio bat darama bertan. Oso gazte ezkondu zela kontatu

digu, hemeretzi urterekin, eta hiru seme-alaba izan ditu ordutik. Egun, dendan egiten du lan, eta jendearekin hitz egitea maite du. Zein zaletasun dituen galde-tzean esan digu etorri berritan ez zuela denborarik izan horretan pentsatzeko.

Shahid (Pakistan)

Pakistangoa da eta hogeita hamalau urte ditu. Hemezortzi urterekin lanean hasi zen Pakistanen, baina, ez zuen aukera asko, eta lanean oso gaizki tratatzen zuten. Bizimodu hobeari baten bila hasi zuen bidaia. Errusiara joan zen ikastera, baina, engainu bat tarteko, kale gorrian geratu zen. Handik, bakarrik egin zuen honainoko bidaia, eta ez du familiarik izan inguruan. Gaztea zenean jolastea, lagunekin paseatzea eta festa egitea gus-tatzen zitzaion. Futbola eta Cricketa gus-tatzen zaizkio.

Bizi baldintzak eta migrazio testuingurua

Elgoibarrera bizitzera etortzeko hautua arrazoi ezberdinengatik egin dute batzuek zein besteek. Gehienek kontatu digute, familia harremanek edo beharrak bultzatuta, lan edo bizimodu hobea baten bila etorri zirela. Ikusi dugunez, batzuentzat Elgoibarre-
ra iritsi arteko bidea luzea izan da oso; izan ere, bidean herrialde edo hiriburu asko igaro dituzte. Hobeto bizitzeko desira eta beharrak bultzatuta iritsi ziren asko hona, baina Aroari, Sekouri edo Shahidi, adibidez, urrun geratu zaie amets europarra.

Sekou:

Nire herrian jende askok dio, Europa oso ondo. Hona zatoz eta ez duzu lanik. Udala, Lanbide... ez duzu lanik. Ez dut lagunik, ez ezer. Ez dut emazterik, ez senarrik, ezer. Ezkongabea naiz. Bizitza ez da erraza niretzat.

Elkarrizketatutako gehienak, Patxi, Cian, Lekuona, Marco, Anne, Shahid eta Aroa, urtean behin, gutxienez, jatorrizko herrietara bisitan joan ohi dira. Angiek eta Sekouk, ordea, ezin izan dute jatorrizko beren herrialdetara itzuli, paperik ez delako, bata, eta dirurik ez, besteak.

Angie:

Nikaraguara itzuli nahi nuke. Hemen bizimodua hobea da, laguntza gehiago daude. Bi haurdunaldi izan ditut, eta zaila egin zait paperak eskuratzea, lan egitea. Lan elkarrizketa batean ume batekin ikusi ninduten eta ezetz esan zidaten bi haur nituelako. Harrapatuta eta lotuta sentitzen naiz. Paperik gabe ezin dut nire sorterrira joan. Hilabeterako bada ere. Irteerarik gabe.

Elkarrizketatutako askoren migrazio prozesuak zailak eta gordinak izan dira, eta arrazakeriak alderik alde zeharkatu ditu. Anneri, Anari, Aroari, Patxiri, Lekuonari, Ciani, Fatimari eta Marcori Elgoibarren edo inguruan familia edo lagun bat izatea lagungarri izan zaie. Elgoibarren familia dutenen artean bi talde antzeman ditugu: bata, Euskal Herrian bizi eta jaiotako familiak dituztenak, ez arrazializatuak; eta, bestea, lanera edo bizimodu berri baten bila etorri diren familia kideak dituztenak, asko arrazializatuak, baina, ez denak. Familia sare horiek, lana edo etxebizitza aurkitzeko lagungarri izan zaizkie guztiei. Era berean, jatorria eta azal koloreagatiko estigma eta arraza-

keria tarteko, alokairu, etxebizitza edo lana aurkitzeko zailtasun handiak izan dituzte askok. Euskaraz ez jakitea ere lana aurkitzeko oztopo dela esan digu Anak.

Familia edo lagun sarerik gabe Elgoibarrera heldu direnen kasua da Sekourena eta Shahidena. Kontakizunean argi antze-man dezakegu bidaia bakarrik egiteak dakarren zaugarritasun, babesgabetasun eta bortxa testuingurua.

Shahid:

Hemen senideak izanez gero, iritsi berritan zain zaitzakete. Lana izan edo ez, ez zenuke arazorik izango. Baina, seniderik ez duenak, iritsi, eta, berria izanda, ez daki hizkuntza, nola komunikatu jendearekin, lana bilatzeko eta bizitza aurrera ateratzeko arazoak izango ditu. Gogorra.

Elgoibarren bizi diren jatorri askotariko herritar gehienak, adin tarteari dagokionez, enplegurako sarbide adina dute (Uranga 2022, 10). Atentzioa eman digute aisialdiari buruz galdetzean jaso ditugun hainbat erantzunek. Gehienek denbora falta azpimarratzen dute, etengabe, eta emakumeak dira egoera hori bereziki aipatzen dutenak. Elkarrizketen aurkezpenean ikusi dugun bezala, Lingek, Aroak, Angiek, Anak... bizitzeko oina-

rrizko beharrak asetzeko ezintasunak aipatzen dituzte, besteak beste: lana edo alokairua aurkitzeko zailtasunak.

Elkarrizketatutako lagunen kasuan, Elgoibarrera iristerako, askok bazekiten gaztelania, batzuek jatorrizko hizkuntza dutelako, eta beste askok aurrez Espainiako zenbait herritan, nahiz Galizia zein Katalunian hilabeteak edota urteak egin zituztelako; esaterako, Shahidek, Patxik, Anak, Aroak eta Lingek. Fatima ere bi hilabetez aritu zen gaztelania ikasten Elgoibarrera heldu aurretik. Lekuko hizkuntza ezagutu gabe bizimodua aurrera ateratzea zaila dela esan digute eta mendekotasun egoerak eragiten dizkiela. Horretaz gain, egoera are zailagoa da inguruan heldulekurik, familiarik edo lagunik ez dutenentzat.

Shahid:

Hizkuntza ezagutzen ez duzun leku batean zaudenean, ez daukazu nora joan, non jan, eta horrek larritasuna eragiten dizu. Beldurra, ez dakit, azken finean larridura, eta pentsatzen duzu: “zer pasako da orain?”

Esan digutenez, guztiek mantentzen dituzte jatorrizko herrialdearekiko harremana eta bertako ohiturak. Komunikatzeko whatsapp-a, facebook-a, bideo-deiak, telefono deiak eta auke-

ran dituzten sare sozialak erabiltzen dituzte. Janaria, festa, erlijioa eta hizkuntza dira gehien gorde dituzten usadioak. Jatorrizko hizkuntza mantentzea ere garrantzitsua iruditzen zaie gehieni, eta halaxe egiten dute jatorri bereko komunitateko kideekin eta, etxean, familiakoekin.

Txirikordatutako zapalkuntzak

Hizkuntzari lotutako bizipen eta pertzepzioak ezin ditugu gai isolatu gisa aztertu, ingurua zein testuingurua aintzat hartu gabe. Hori dela eta, jarraian, klaseak, jatorriak eta generoak, besteak beste, elkarrizketatu ditugun migratu eta, bereziki, pertsona arrazializatuei nola eragiten dieten azaldu nahi genuke.

Elkarrizketatu ditugun emakume gehienek bizitzako momenturen batean lan prekarizatuetan jardun dute. Horretaz gain, lana lortzeko arazoak azpimarratu dituzte, arrazakeria tarteko, eta, kasu askotan, baita haurrak zaintzeko arduraren izateagatik ere. Zalantzarik gabe, generoaren aldagaiak zeresan handia du bizi-baldintzen alorrean. EAEn eta Elgoibarren immigrazioaren

Elkarrizketatu ditugunetako gehienek beren herrialdeetako komunitateko lagunak dituzte. Lan esparruak jende askorekin harremantzeko aukera eman diela esan digute, baita, herriko elkarte edo ikastaro desberdinetan parte hartzeak ere.

feminizazioa dagoela erakusten dute datuek (Uranga, 2022). Elkarrizketatu askoren testigantzek agerian uzten dute *Doppia presenza* (Sagastizabal 2020, 17) deiturikoa, hau da, “emakume langileen presentzia bikoitzak, bai etxean, bai etxetik kanpo lan egin behar izateak sortzen dien lan karga eta denbora falta”.

Aroa:

Pentsa ezazu, lan batean lanean zaudenean, txanda zatikatuan eta alaba batekin. Ni beti korrika bizi naiz. Jaiki eta korrika, alaba eskolara eraman, korrika itzuli bazkaria jartzera, eguerdian lanera sartzeko. Lauretan alabaren bila joan, bueltatu, tartetxo bat egon berarekin edo aktibitatearen batera eraman. Zazpitan tabernara itzuli. Horrela egunero.



escola

Denbora falta hori hizkuntza berri bat ikasteko zailtasun eta oztopo nagusienetakoa dela esan dezakegu. Jatorrizko herriak atzean uzteko arrazoi nagusia bizi-baldintza hobekak eskuratzeko dela esan digute gehienek, eta hori lanarekin lotzen dute. Bizirautea eta lana dira, beraz, lehentasunak, argi eta garbi, berarentzat.

Zalantzarik gabe, jatorriak eta azalaren koloreak arrazakeriari lotutako bizipenak eta bereizkeriak eragiten dituela ikusi dugu. Ez da berdina europar, asiatar, afrikar edo amerikar jatorrikoak izatea. Ez da berdina zuria edo beltza izatea. Zenbat eta beltzagoa izan, orduan eta handiagoa izan ohi da jasan beharreko zailtasun, bortizkeria eta bazterkeria. Ez da berdina europarra izanik, Italian edo Errumanian jaioa izatea. Azkenik, klase sozialak edo ahalmen ekonomikoak zuzenean eragiten dute.

Ana eta Fatima marokoarrak eta musulmanak dira. Jantzera eta itxuraren ondorioz pairatutako arrazakeria egoerak kontatu dizkigute. Anaren hitzetan, zupia eraman edo ez, ingurukoak ez dira berdin hurbiltzen eta zuzentzen. Tratua ezberdina dela diosku, zapirik janzten ez dutenengana errazago gerturatzen dela jendea, eta, zupia eramanez gero, berriz, errezeloz begiratzen dietela. Anak dio belok lana aurkitzeko zailtasun handiak

eragin dizkiola. Egoera hori dela eta, curriculumeko argazkitik zupia kendu eta txanoa jartzea erabaki zuen, ilea solte utzita. Halere, ez du lanik lortu.

Shahiden iritziz, zailena ez da lana topatzea, non bizi baizik. Lana egon badagoela dio, eta zehazten du emigranteei zuzendutako lanak daudela egun:

Shahid:

Atzerritarra izateagatik zailagoa da gaur egun, bereziki, pisua aurkitzea. Lana ez nizuke esango, lana egon badago. Finean, badiara atzerritarrek bakarrik egin ditzaketen lanak. Landa lana ez dizu nehorik egingo, ez bazara atzerritarra. Nik zortea izan dut, eta ez naiz aritu. Hizkuntza ez nekienean egun batzuk egin nituen, baina, erregularizatu ondoren, baimena eskuratu eta azkar ikasi nuen gaztelania.

Anne errumaniarra da. Hizketan entzun eta errumaniarra dela jakitean, askok aurreiritzi arrazistekin tratatu dutela esan digu. Italian jaiotako Marcokekin alderatuta, ikus dezakegu jatorriaren araberrako estigma sozialak ez duela zerikusirik batean zein bestean. Patxi, Lekuona, Cian eta Marco gizonak eta zuriak dira eta arrazakeria egon badela dioten arren, beraiek ez dutela ha-

lakorik bizi esan digute. Zuritasunak lehen bistan jarrera arrazista asko saihestu arren, hizkuntza azentuak edo eta jatorria ezagutzeak aurreiritzi eta jarrera horiek aktibatuta ditzakete.

Aroa:

Anbulatorioan erreklamazio orria jartzera iritsi nintzen. Jatorriaren arabera desberdin tratatzen zaituzte. Biok joango bagina, ni ikusi, baina, zu pasaraziko zintuzkete. Eta zuri modu batera erantzungo lizukete eta niri beste era batera. Badakizu, nola ez zaren hemengoa ba hitz egiten dizut... zer dakit... Arbuioa sentitu dut. Hemen oso gaizki sentitzen naiz. Ezin dut. Gauza bakarra ez naizela hemengoa, baina, zu bezala ari naiz lanean, berdin-berdin.

Egiturazko arrazakeriaren erakusle dira alokairua edo etxebizitza eskuratzeko elkarrizketatutako askok izandako zailtasunak. Paperik ez izatea ere oztopo bikoitza da etxebizitza eskuratzeko orduan. Horretaz gain, administrazio publikoan gertatutako zerbitzu eta harrera baztertzaileren testigantzarik ere izan dugu.

Malu:

Nire senarrak Bergaran egiten du lan, eta bere laguna hemengoa da, euskalduna. Hark eskatu zion, mesedez, “esaiozu emazteari Elgoibarren pisua bilatzeko”. Nik ezetz esan nion, hobe zela bera etortzea. Sartzen saiatu, eta atetik, hitzik ere egin gabe, ondorengoa esan zidaten “Ez dago alokairurik, ez dago!”, eta nik erantzun nion “Mesedez, utzi hitz egiten”... Ez nuen ezer esan, kaixo ere ez, eta barrura sartu aurretik esan zidaten “ez dago”. Esan nion “mesedez, ez da niretzat”, eta bere erantzuna “Ez dago”. Eta hori ez dute nirekin soilik egin, e!



Hizkuntza erradiografia

Jarraian, elkarriketatu ditugun pertsonen zein hizkuntza eza-gutzen dituzten eta nola komunikatzen diren azalduko dugu. Guztira, 12 herritar elkarriketatu ditugu, ondorengo jatorria dutenak: Irlanda, Italia, Albania, Errumania, Maroko, Mali, Ni-karagua, Dominikar Errepublika, Argentina, Txina eta Pakistan. Euskara eta gaztelaniaz gain, beste hamabost hizkuntza hitz egiten dituzte: ingelesa, albaniera, arabiera, berberera, man-darinoa, kantonera, italiara, bambara, soninkea, wolofa, urdua, punjabera, errumaniera, gaelikoa eta frantsesa. Elgoibarko hiz-kuntzen mapa oso anitza dela esan dezakegu, beraz.

Soziolinguistika klusterrak Elgoibarren egindako ikerketa kuantitatiboaren arabera, *jatorri atzerritarreko biztanleriaren % 49,2k gaztelania du hizkuntza ofiziala jatorrian* (Uranga 2022). Elkarriketatu gehienek hitz egiten dute gaztelaniaz; zehazki, hamabitik hamarrek. Beste bik ulertzeko zailtasunak dituzte. Euskararen kasuan, argazkia oso bestelakoa da. Nahiz eta de-nek ezagutu hitz bat edo beste, eta batzuek zertxobait ulertu hizkuntza, hamabitik bakarra da euskaraz hitz egiteko gai.

Jatorrizko herrialdeetako hizkuntza ofizialaz gain, hizkuntza gutxitu edo ez hegemoniko asko antzeman ditugu. Horien ar-tean daude banbara, soninkea, wolofera, berberera, kantonera eta punjabera. Hizkuntza ez hegemoniko eta hegemonikoen arteko alderaketa egiten dute askok. Horiei buruz aritzean, euskara eta gaztelania bezala, kantonera eta mandarin txinata-rra, berberera eta arabiera, eta punjabera eta urdua konparatu dituzte.

Elkarriketatu ditugun pertsonen Elgoibarko herritar, hiztun eta hizkuntza testuinguruari buruz esandako hiru ideia azpimarra-tu nahi genituzke. Lehena, eremu euskaldunaren eta gaztela-niarraren arteko bereizketa. Bigarrena, eta askok aipatu digu-tena, euskararen erabilera urria dela Elgoibarren. Horri lotuta, hirugarrena, Elgoibarren euskara jakin gabe bizi daitekeela; gatzelania jakin gabe, ostera, ez.

Marcoren iritiz, “Elgoibarren badaude bi talde, bi eremu: eus-kalduna eta ez euskalduna, eta ez dira nahasten hainbeste. Ni sartu nintzen euskaldunean, eta, orduan, niretzat motibazioa

izan da (euskara ikasteko)”. Lekuonaren iritziz, Elgoibarren bizitza ez dio bermatu inguru euskalduna izatea.

Lekuona:

Azpeitian edo inguruko herri euskaldunago batean bizi izan banintz... Horrelako lekuren batean bizitzea tokatu izan balitzait ikasiko nukeen, hizkuntza hori edo beste edozein. Kostatuko litzaidake, baina, bai. Hemen, Elgoibarren, ez da horrenbeste entzuten euskara. Kaletik zoazenean, gaztelania asko entzuten da.

Cianek, Fatimak eta Annek, besteak beste, iritsi berritan gehienek gaztelaniaz egiten zietela esan digute. Gehienek gaztelania komunikazio orokorrerako ezinbestekoa dela eta halabeharrez ezagutu beharreko hizkuntza dela deritzote (Uranga eta Aierdi 2021, 74).

Marco:

Erdaraz jakin gabe ezinezkoa da, ezin da hemen bizi. Euskaraz hitz egin gabe bai, posible da, baina, beti, zerbait falta zaitzu. Adibidez, ekitaldi pila batzuk euskaraz dira, eta kalian nire lagunak beraien artean euskaraz hitz egiten dute. Posible da, baina, beti, pixka bat mugatuta zaude. Eta hemengo kultura

ulertzeko ere oso garrantzitsua dala uste dut hemengo hizkuntza ezagutzea, bai.

Ling:

Jendeak ulertzen duen hizkuntza ezagutzen baduzu, orduan beste bat ikasteko ez duzu horrenbeste animo. Ni orain arte lanean aritu naiz urte luzez, eta hizkuntza ikasteko arrazoia beharra izan da. Zerbait behar dudanean, berdin du zer, ikasi egingo dut. Errazago ikasiko dut. Bestela, ez dakit zein beste motibo egon daitekeen.

Elgoibarren gaztelania bakarrik jakinda bizi daitekeen eta euskara jakinda ez galdetuta, horrela erantzun digu Marcok:

Marco:

Nik uste dut horren atzean arrazoi historikoak daudela. Hau da nire ikuspuntua. Segur aski, Frankoren diktadura zehar euskara debekatuta zegoen, eta jende batzuek galdu egin zuten euskara, eta gero, denbora horretan immigrazio nahiko handia izan zen Espainiatik. Eta, nola ezin zen euskaraz hitz egin, Espainiatik etorritakoak ezin zuten edo ez zuten behar.

Gaztelania jakin edo ez, elkarrizketatu askok Elgoibarrera iritsi berritan (eta ondoren ere) ez zuten Euskal Herria kultura eta hizkuntza propioa duen nazio edo lurralde historiko gisa ezagutzen. Elkarrizketetan etengabe errepikatzen dituzte, “hemen, Espainian”, “Espainiara iritsi nintzenean” edo gisako esaldiak. Gaztelania ikasteko betebeharra sentitu dute askok, maiz, hala aholkatu dietelako edo eta Espainian daudela sentitu dutelako. Espainiako hizkuntza bakarra gaztelania dela uste izan dutenak ere badira, eta Elgoibarren edo eta EAEn euskara existitzen zenik ez zekiten elkarrizketatuetako batzuek.

Shahid:

Gaztelania ikasi, beste aukerarik ez nuen. Herrialde batera iritsi naiz, hizkuntza bat bada eta bizitzeko ikasi behar dut. Bai ala bai.

Ana:

Hona iritsi nintzen arte ez nekien euskara hitz egiten zenik. Espainian hizkuntza bakarra hitz egiten zela uste nuen.

Maluri eta Sekouri, iritsi berritan, kaleko hainbat herritarrek gaztelania ikasteko aholkatu zieten, baita Helduen Hezkuntza Eskolan (EPA) ere.

Malu:


Hona iritsi ginenean gaztelania ikasteko eskatzen ziguten, ez euskara. Leku denetan, eskolan, kalean... denean. Gero, lana eskatzean euskara eskatzen dizute. Oinarrizkoa jakin behar duzu. Jendea datorrenean bi hizkuntza daudela esan behar zaie, eta ez, bakarra. Iritsi nintzenean, denek galdetzen zidaten: “badakizu gaztelania?”. Ez zidaten galdetzen beste hizkuntzarik ba ote nekien. [...] Baina, ez. Gaztelania eta gaztelania. Horregatik, gaztelania ikasteko baliatzen nuen indar guztia. Ez nion euskarari erreparatu alabak eskolan hasi ziren arte. Hor ohartu nintzen, alabak eskolan hasi zirenean, beste hizkuntza bat ere bazela.

Azkenik, Fatimak kontatu digu, nahiz eta inguruko euskaldun askok jakin berak euskara eta gaztelania ez zekizkiela, euren artean euskaraz, baina, berari gaztelaniaz zuzentzen zitzaizkiola. Patxik ere antzera diosku, bere lagun askok euskaraz egiten dutela, baina: “ [...] gero *guiria* azaltzen da, eta denek gaztelaniaz egiten dute”.

Elkarrizketatu batzuek hizkuntza ez hegemonikoak ezagutzen eta hitz egiten dituzte. Euskararekin bezala, hizkuntza horiek galtzeko kezka adierazi dute. Shahiden hitzetan ez galtzeko gakoa transmisioa da.

Shahid:

Gure seme-alabei erakutsi. Guraso izatera iristen direnean, erakuts diezaietela seme-alabei. Estatua ez bada zutaz arduratzzen, zu zeu arduratu behar zara. Zurea den zerbait sentitzen duzu. Seme-alabei irakatsi, eta, doazen lekura doazela, berekin eramán dezatela esan behar zaie. Nikuste dut hori dela modua.



Hizkuntzaren erabilera

Elkarrizketatu guztiek hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten dutela ikusi dugu. Lekuan leku, testuinguruaren arabera, bat edo beste baliatzen dugu, batzuetan, modu inkontzientean, eta, beste batzuetan, hautu propioz. Askoren kasuan, bizileku berri batera iristeak hizkuntza berriak ikasi beharra eragin du. Gehien-gehienek mantentzen dituzte jatorrizko hizkuntzak, eta horiei eusteko antzeko estrategiak baliatu dituzte. Etxeak eta jatorrizko komunitateek hizkuntzaren gordailu lana egiten dutela antzeman dugu. Espazio publiko eta pribatuari erreparatuta, gaztelania, hizkuntza hegemoniko gisa, kalean zein lan eremuan erraz gailentzen dela ikusi dugu. Jatorrizko hizkuntza mantentzeko estrategia transmisioa dela ere argi ikusten dugu. Denek erakutsi diete jatorrizko hizkuntzaren bat euren ondorengoei, eta, kasu gehienetan, jatorrizko hizkuntza ofizial edo hegemonikoa irakutsi diete.

Nahiz eta egunerokoan euskaraz komunikatzeko gai ez izan, Lingek, Lekuonak, Anak, Sekouk eta Shahidek oinarrizko hitz batzuk ezagutzen dituzte, eta, askok, egunerokoan erabiltzen dituzte. Bereziki, agurtzeko hitzak baliatzen dituzte: *kaixo*,

agur, egun on, arratsalde on, gabon, zer moduz? Horretaz gain, hitz solte batzuk ere bai: *eskerrik asko, ez horregatik, ondo pasa, poliki-poliki, kontuz* eta abar. Aitzitik, euskararen presentzia anekdotikoa da elkarrizketatu gehienek mintza jardunean, baina, ikuspegi sinboliko batetik, agurrak edo oinarrizko zenbait hitz euskaraz egiteko hautua zergatik egiten den aztertzea interesgarria izan daitekeela uste dugu.

Hizkuntza jabekuntzari dagokionez, jatorrizko herrietako hizkuntza familiarik jaso dute elkarrizketatu denek. Askok herrialdeko hizkuntza ofizialak ikasi dituzte, gerora, eskolan, Shahidek urdua, Sekouk frantsesa edo eta Lingek mandarin txinatarra. Gaztelaniaz ez zekiten elkarrizketatuak migrazio prozesuen ondorioz hasi ziren gaztelaniaz jabetzen, gehientsuenak bizirauteko eta lana eskuratzeko ahaleginetan. Annek, Anak, Sekouk, Fatimak, eta Shahidek ikastaroren batean parte hartu dute noizbait. Halere, Annek, Patxik, Cianek, Marcok, Sekouk, Shahidek eta Lingek kalean edo lanean ere trebatu direla esan digute.

Patxi:

Nik han ikasi dut gaztelania. Kalekoa. Ez naiz eskolan izan, eta ez dut ikastarorik egin. Jendearekin hizketan, harremantzen ikasi dut.

Ling:


Badakigu ez dugula ongi hitz egiten gaztelania. Ezin da bertako jendearekin alderatu. Guk hizkuntza kalean ikasi dugu.

Euskarari dagokionez, Lekuonak, Angiek eta Marcok ikastaroren bat egin izan dute, baina, kasu honetan ere, gehienek, Aroak, Cianek, Marcok, Shahidek eta Lingek lanean eta kaletik jaso dute. Hitz eta esaldi solteak ulertu edo interpretatzeko gai direla esan digute askok, baina, Marco da, guztien artean, euskaraz hitz egiteko eta komunikatzeko gai den bakarra.

Ling:

“Kaixo!”, ... eta zuk ere “kaixo” esaten duzu. Hori da. Jendeak hitz arruntak esaten dituenean nik ere ulertzen ditut. Euskaraz hitz egiten didate, eta nik jakin ez arren, batzuetan badakit zer esaten didaten.

Elkarrizketetan ikusi dugunez, gehienek kalean nahiz lanean entzuten eta praktikatzen ikasi dituzte hizkuntzak. Entzume-na lantzeko lagungarriak izan dira askorentzat irratia eta telebista, baita aldizkari, egunkari eta liburuak ere. Ikastaro trinkoak egin dituztenak gutxi dira, gehienek tarte laburrak eman dituzte hizkuntzak ikasten. Kasu honetan, arreta eman digu euskara ikasten aritu diren hiru lagunetatik bakarra dela gai gaur egun euskaraz komunikatzeko. Ez da berdina gertatzen gaztelaniarekin. Eskolan eta ikastaroetan aritu direnen artean, ia denak dira komunikatzeko gai.





Bizipen linguistikoak

Hizkuntza berriak ikasteko orduan, askotariko oztopoak eta abantailak izan dituzte ikerketa honetako protagonistek. EAEn, euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak dira. Hori horrela, bietako hizkuntza bat ezagutzea abantaila nabarmena da komunikatu ahal izateko. Aroaren, Angieren eta Lekuonaren jatorrizko hizkuntza gaztelania da, beraz, ez dute hizkuntza oso-rik ikasteko premia berezirik izan. Lingek, Shahidek, Sekouk, Anak eta Patxik, Elgoibarrera heltzerako, bazekiten gaztelania, baina, euren herritik alde egin ondoren ikasi behar izan zuten. Fatimak, Cianek eta Marcok Euskal Herrira iritsita ikasi dute gaztelania.

Latinetik datozen hizkuntzetan mintzo direnek gaztelania erraz ikasi dutela esan digute. Ez da berdina, ordea, Shahiden edo Lingen kasua, biei asko kostatu baitzaie gaztelania ikastea.

Ling:

Askok kostatu zitzaidan. Hasieran, denek esaten zidaten gaztelania erraza zela. Hizkuntza bat ez da inoiz erraza.

Lekuonak, Angiek, Fatimak eta Anak euskara ikasteko ikastaro laburrak egin dituzte. Ikastaroak ikastaro, hizkuntza praktikara eramateko espazioak falta dituztela aipatu digute eta, gainera, kalean euskarak presentzia gutxi duela.

Lekuona:

Euskara ez da kalean ikasten. Horregatik niotsun. Azkoitian, Azpeitian edo Markinan biziko banintz, egunero hitz eginda ikasiko nukeen.

Denbora edo baliabide ekonomikoen falta euskara ikasteko zailtasuna da askorentzat. Lingek, Lekuonak, Shahidek, Annek, Patxik eta Aroak denbora falta aipatzen dute.

Shahid:

Tarteka, jendea hizketan entzuten dut, eta horrek kuriositatea pizten dit. Zer esaten ari ote diren. Animatzen naiz eta pentsatzen dut: "Ikasiko dut". Baina, azkenean, lana dela, bestea dela, ez dut denborarik.

Aroa:

Nik badakit, ulertzen dut agian ikasi beharko nukeela. “Ikasi-ko zenuke? Zergatik ez duzu ikasten?” Lagundu, bai, eskolara joanez adibidez. Baina, zein kostu dute euskara ikasteko eskolek? Uste dut, gehienez, laurehun edo berrehun. Ez dakit. Ez dut diru hori, ez dut astirik. Hizkuntza hori gabe lan egin eta besteengandik ikasi ahal dudan bitartean, nik ezin dut luxu hori onartu, ez baitaukat dirurik. Euskara eskolak ordaintzea oso garestia da. Guk obligazioak ditugunok, handik gatozenok, ezin dugu luxu hori baimendu.

Euskara ez ikasteko arrazoen artean alferkeria ere maiz errepikatzen da.

Cian:

Pixka bat damu naiz aurrez ikasi ez izanaz. Orain alferra naiz, eta ez dut ikasiko. Badakit ez dudala ikasiko.

Ling:

Kontua da pixka bat alferra naizela, eta horregatik ez dut gehiago ikasi.

Hizkuntza ideologiak ere euskara ikasteko oztopo izan daitez-

ke. Hizkuntza zaila dela, ez dela horren garrantzitsua edo baliagarria eta ikasteko gai ez direla izango sinesten dute askok. Horretaz gain, informazio falta ere oztopo handia da; adibidez, udalak eskaintzen dituen zerbitzuak ez ezagutzea edo dauden eskaintzetara moldatu ezina.

Euskara ez jakiteagatik esperientzia negatiboak izan dituzte batzuek. Eta hori ere ikasteko traba edo motibazio galera bilaka daiteke. Lan esparruan gertatu dira kontatu dizkiguten egoerak.

Cian:

Gauza batzuek ikaragarri izorratzen naute. Taberna batean nengoen, eta kuadrilla bat sartu zen. Denak gaztelaniaz hizketan. Eta gero, “Zu! Euskaraz bai, e!”. Niri euskaraz hitz egiten hasi zitzaizkidan. Horrelako gauzekin ezin dut. Denak gaztelaniaz ari zarete, gero “Kaña bat!” esateko.

Hizkuntza ikasteko motibazioari dagokionez, gehienek aitortu digute gaztelania lana bilatzeko eta bizirauteko beharrezko sentitu dutelako ikasi dutela. Elkarrizketatuei, bereziki, euskara ikasteko zein motibazio izan duten galdetu diegu. Arrazoen artean, ideia hauek errepikatzen dira etengabe: sozializatzeko, inguruko pertsoneri ulertzeko, jakiteko, lana aurkitzeko edo seme-alabei laguntzeko.

Ana:

Ikasi nahi dut, gehiago jakiteko gogoia dut, jendearekin hitz egiteko eta, bereziki, egoitzan lan egiteko. Eibarko egoitzan curriculuma onartu didate, baina, ez dudanez euskara menderatzen, zaila da han lan egitea.

Semei etxean laguntzeko. Etxeko lanak izan ohi dituzte, eta euskaraz direnean ezin ulertu zein zeregin duten. Begira gertatzen zara eta ezin lagundu.

Marco da guztien artean euskaraz hitz egiten duena, eta bere kasuan motibazioa familia dela esan digu. Patxik eta Sekouk euskara ikasiko luketela diote, baina, lehenak ez du denborarik, eta beretzat ez da lehentasunezkoa; bigarrenak, ostera, ikasteko zaila dela diosku. Iritzi horiez guztiez gain, Lingek motibazioari buruz aipatzen duena esanguratsua dela uste dugu, hau da: ingurukoek ulertzen duten hizkuntza bat jakiteak beste hizkuntza bat ikasteko motibazioa galarazi dezakeela. Azkenik, Marcok, motibazioaz honako hausnarketa egin du:

Marco:

Gero eta gehiago hitz egiten bada euskaraz kalean eta ekitaldi gehiago egiten dira euskaraz eta, hori motibazio handia da. Ze,

bestela, jendeak ez du ulertzen eta, orduan, ikasi behar du. Ez dago besterik.

Entzuketak ere berebiziko garrantzia du hiztunengan, eta hizkuntza ideologiek, norberaren aurreste zein pertzepzioek eta hizkuntzen arteko botere harremanek eragina dute entzulearengan. Arraza eta generoari lotutako diskurtsoek aurrean duguna entzuteko modua baldintzatzen dute, hau da: “hizkuntzaz uste dugun hori bera uste dugu hiztunez eta hiztun komunitateaz, eta baita jendarteaz ere” (Agirre eta Eskisabel 2019, 38). Elkarrizketatuei galdetu diegu, jatorri desberdinetakoak izanda ea desberdin tratatu ote dituzten. Azalaren koloreak ez ezik, hizkuntzak ere arrazializatzen duela adierazten duten testigantzak jaso ditugu.

Anne errumaniarra da eta azal zurikoa. Hizketan entzun orduko bereganako jarrera nola aldatu den sentitu du askotan. Hitz egiteko moduagatik balioan ez jartzea, bazter uztea edo besteei bezala ez entzutea pasa ote zaion galdetuta, baietz erantzun digu.



Anne:

Behin edo behin, entzun, hizkuntza ezagutu eta bizkar eman didate. Edo, gasolindegiko atea itxi. Zuk ez diozu deus esaten, ez begiratzen, baina, norbait zu probokatu nahian dabil.

Hizkuntzari atxikitako balioak

Hizkuntza nortasun gordailu dela genioen (Vázquez 2020). Ezbairik gabe, lotura hertsia du kultura eta identitate atxiki-menduarekin. Elkarrizketatutako askok jatorriko hizkuntza beraien sustraiekin eta lurraldearekin lotzen dute.

Patxi:

Ama hizkuntza ez da ahaztu behar. Leku batekoa edo bestekoa izan... nire hizkuntza da daukadan garrantzitsuena. Horrekin hezi naizelako, hizkuntzarekin, ez dakit. Nire herrialdea nirea da, bere zailtasunekin, baina hori ez da pertsonen errua, politikarena baizik. Pertsonak oso onak dira, baina, politika, alde denetan bezala, txarra da.

Anak ere esan digu arabieraz hitz egiten entzunda, maiz, ez diotela kasurik egin. Aroak, ostera, telefonoz deitu eta bere azentua nabarituta, maiz, desberdinkeriaz tratatu dutela.

Shahid:

Punjab nire lurra da, nire jatorria. Nongoa naizen, nondik natarren, badakizu.

Kulturak, identitateak eta hizkuntzak hiruki modukoa osatzen dute maiz, eta harreman zuzena dute politikarekin. Bada hiruki horri eta politikak horretan duen eraginari kritika egiten dionik ere.

Cian:

Zerbait sentitu... Ni oso arraroa naiz. Irlandan eta hemen bada gauza hori duen jendea: Kultura eta hizkuntzak gureak dira. Azkenaldian konturatu naiz gauza batzuk, agian, ez zitzaizki-

dala horrenbeste gustatzen baina gustuko izan behar ditudala esan didatela. Badira Irlandako gauza batzuk: Politika izan daiteke edo ez. Gaztea zarenean, jende jakin batekin bustitzen saiatzen zara, kultura omen den hori ikasteko.

Egin ditugun elkarrizketen artean, badira familia edo jatorri euskaldunekin harreman zuzenagoa dutenak. Lekuonaren familia euskal jatorrikoa zen. Horri lotuta, bertakoa sentitzen dela dio eta kulturarekiko atxikimendu berezia duela. Euskararen erabilera urria, besteak beste, kulturaren transmisio faltari atxikitzen dio. Marcok ere euskal kulturarekiko atxikimendu berezia duela esan digu:

Marco:

Sentitzen dut euskara hurbilago ingelesa baino. Ez dakit zergatik. Nik uste dut kulturaren arabera dala. Ez dut analizatu eta aztertu, baina, horrela da. Gaztelania ondo sentitzen dut, Italiako kultura eta Espainiakoa nahiko gertu daudelako. Eta hemengo kultura, Euskal Herrikoa, niretzat oraindik gertuago. Ze nik uste dut Italia iparraldeko kultura hemengoaren oso antzekoa dala.

Jatorrizko herrian hizkuntza gutxitu edo ez hegemonikoa hitz egiten dutenek euskararekin parekatzeko joera dute. Hizkuntzei balioa esleitzeko orduan erabili dituzten argudioen artean, hizkuntza ideologiaren eragina nabarmena dela ikusi dugu.

Hizkuntza batzuei besteei baino balio handiago edo txikiagoa esleitzen zaie, eta horri lotuta, uler dezakegu elkarrizketatuek hizkuntza bat edo beste ikasi eta erabiltzeko egin duten hautua. Gaztelania, ingelesaren tankeran, hizkuntza global eta garrantzitsu gisa deskribatu digute elkarrizketatu askok. Bitxia bada ere, ingelesa dakitenen artean, Marcok bakarrik esan digu erabiltzen duela. Euskarari dagokionez, Angiek, Cianek, Lingek eta Patxik hizkuntza erabilgarria dela diote, baina, soilik, Euskal Herrian. Hitz egiten den lekuan hizkuntza bakoitza garrantzitsua dela deritzote hainbatek. Baina, bestetzuek, hizkuntza hegemoniko edo globalak txikiak baino garrantzitsuagoak direla uste dute eta, ildo horri jarraituz, euskara desagertu daitekeela ere aipatu digute.

Patxi:

Hizkuntza komunak besteak baino, txikiak baino, garrantzitsuagoak dira. Ez dut ezer bizi zaren lekutik kanpo ezagutzen ez diren hizkuntza txiki edo partzialen kontra. Lehentasuna du gehien hitz egiten dena ikasteak. Ez dakigu ehun urte barru

zein hizkuntza hitz egingo dugun. Agian, berri bat, posible da. Badira garatzen diren gauzak, eta beste batzuk galdu egingo dira.

Fatima:

Ingelesa ikasi nahiko nuke. Erraza da ezta? Eta gaztelania?

Hizkuntza ideologiak

Hizkuntza ideologiei erreparatuta, elkarrizketatuen sinesmen multzoak eta hizkuntzari buruz dituzten sentimenduak adierazteko eta erabiltzeko baliatzen dituzten hitz eta esaldiak ezagutu ditugu. Azterterakoan, ikuspegi dikotomikoa da arreta piztu diguna. Hizkuntzen artean zailaketa errazak, modernoaketa tradizionalak, funtzionalaketa ez funtzionalak... bereizi dituzte elkarrizketatuek etengabe. Behin eta berriz azaldu da euskara zaila dela errepikatzen duen mantra.

Lekuona:

Ingelesa zaila zen, eta nola ikasiko dut ba euskara. [...] Euskara ezin-go nuke. Ea, esaldiren bat, oso ongi pentsatuta. Elkarrizketa bat eraman dezaket, baina, praktikatu behar dut, eta ez dut praktikatzen.

Euskara zailagoa da. Gaztelania hobea da, euskara ikastea zaila da. Hitzak ez ditut oroitzen.

Angieren, Lingen eta Anneren ustez, ostera, hizkuntzen artean ezin da sailkapenik egin. Denak dira garrantzitsuak, eta duten balioa eman behar zaie.

Patxi:

Hizkuntza zaila da, Europako eta munduko zaharrenetarikoa. Badakit nahiko zaila dela hitzak esatea.

Zailtasunari bestelako ezaugarri batzuk ere atxikitzen dizkio-te. Patxi, Europako eta munduko hizkuntza zaharrenetakoa dela dio, eta Marcok altxor gisa deskribatzen du, “ze da oso-oso zaharra, antzinakoa eta oso berezia”. Hitzok, Azurmendik (1992, 30) deskribatutako euskararen definizio barbaro, arkai-ko edo zaharrarekin bat egiten du, eta, Agirrek eta Eskisabelek aipatutako euskal hizkuntzaren subalternotasun gorpuztua (2019, 24) dakarkigu burura.

zaila
da

EZ NAIZ
GAI

haurorik
bai

zaharra da



Euskara zaila dela eta, gaztelania erraza dela aipatu digute batzuek, eta, bestetzuek, Lingeke eta, edozein hizkuntza berri ikasteak esfortzua eskatzen duela esan digute.

Ling:

Ez naiz horren espeziala sentitzen. Mundu guztiak dio, euskara, zeinen zaila. Ez da euskara zaila den bakarra. Baina, beste hizkuntzarik ez balitz existituko, euskara ere ikasi beharko genuke. Azkenean, hizkuntza denak dira zailak niretzat eta denentzat. Jende askok dio gaztelania errazago dela, baina ez dut uste ikasteko erraza denik.

Proposamenak eta erronkak

Analisiko azken atal honetan, elkarrizketatuek egindako proposamenak eta identifikatutako zenbait erronka zerrendatuko ditugu.

~ Arrazakeriak eta aurreiritziek pisu handia duten gizar-tean, jatorri askotariko herritarren ohitura, kultura eta hizkuntzekiko errespetua sustatzea.

Askotan errepikatu den ideia da hurrek hizkuntzak errazago ikasten dituztela, eta behin heldua izanda, ikastea zailagoa dela.

Angie:

Gertatzen dena da, txikiak garenean, irekiago dugula adimena. Gero, jada, ez. Adinak aurrera egin ahala, adimena ixten joaten da. Ez da berdina. Txikiak garenean dena grabatzen da.

~ Zerbitzu publikoetan, arreta eskaintzeko bitartekari kultural baten figura sortzea.

~ Teknologia berrien abantailez probestea. Adibidez, itzulpenak egiteko. Baliabide horiek herritar guztientzat eskuragarri jartzea.

~ Euskara ikasteko: doakotasuna, ordutegien malgutasuna, plaza gehiago izatea, online ikasteko aukera eskaintzea.

~ Ikastaroetan euskararen presentzia bermatzea. Euskara eta gaztelania, biak nahasi ahal izatea.

~ Euskara praktikatzeko espazio eta topaguneak erraztea.

~ Euskarazko eskaintza kulturala sustatzea.



ONDORIOAK ETA AURRERA BEGIRAKOAK

Ikusi dugunez, elkarrizketatu ditugun jatorri askotariko herritarren bizipen linguistikoak eta euskararekiko pertzepzioak askotarikoak dira, baina badira hainbat aldagai bizipen horietan zuzenean eragiten dutenak, besteak beste, generoa, klasea, jatorria zein arraza. Ikerketa amaitzeko, ikerlan honetan jasotako esperientzia eta bizipenak aintzat hartuta, aurrera begira, balagarriak izan daitezkeen hainbat aholku eta gomendio zereendatu ditugu:

~ Jatorri askotariko herritarrei arreta eta akonpainamendua eskainiko dien erreferentziazko espazio baten beharra. Horri lotuta, beren premia eta egoera ezagutzearen garrantzia, akonpainamendua egiteko eta herriko baliabideak eskura jartzeko. Horretaz gain, harrera integrala izan dadin, gure herriak dituen hizkuntza, kultura eta historia ezagutzera ematea garrantzitsua izango da, besteak beste.

~ Hizkuntzari lotutako udal zerbitzuak ezagutzera emateko bide berriak pentsatzea.

~ Hizkuntzen arteko botere harremanen eta hizkuntza ideologiak sustatzen dituzten aurreiritzien inguruan lan-keta egin eta hausnarketa kolektiboak sustatzeko beharra. Hizkuntza guztien balioa azpimarratzeko beharra.

~ Aisialdiari lotuta, jatorri askotariko herritarrek berau ulertzeko dituzten modu desberdinak jaso eta aintzat hartzea. Elgoibarko komunitateak elkar ezagutzeko eta kulturartekotasuna ikuspegi eraikitzaile batetik garatzeko, espazio komunak sortzea. Udalak espazio horiek erraztea.

~ Euskararekiko esperientzia positiboak sustatzea.

~ Euskalduntzea sustatzeko jatorri askotariko herritarren motiboak aintzat hartzea eta sustatzea.


~ Kalean, lanean, zerbitzu publikoetan, herrian, oro har, euskararen erabilera sustatzeko plan integralak sustatzea, lan arautuan, enplegua eta euskalduntzea uztartzeko proiektuak garatuz, etxeko lanetan jarduten duten emakumeentzako

ikastaro bereziak antolatuz, ordutegiak berrikusiz eta doakotasuna ahalbidetuz. Horri lotuta, euskara praktikatzeko espazio informalak sortzea.

- ~ Hizkuntza baliabideak indartzeko beharra: doakotasuna, ikastaroen ordutegien malgutasuna, plaza eta ikastaro gehiago.
- ~ Hizkuntza politikak ikuspegi dekolonial batetik lantzea herri proposamenak garatzeko, besteak beste, hizkuntza politikak eta beste kulturak eta hizkuntzak babestu eta

balioan jartzeko. Kulturartekotasuna sustatu eta arrazakeriaren aurkako jarrera indartzeko beharra. Elgoibarren hitz egiten diren hizkuntzak eta kultura askotarikoak azpimarratu eta gorroto mezuei aurre egin beharra.


- ~ Euskararen diglosia egoera kontuan hartu eta euskal hiztunak, eta, orokorrean, Elgoibarko herritarrak ahalduntzeko beharra. Euskara balioan jartzeko beharra.



BIBLIOGRAFIA

- > Agirre, Lorea eta Eskisabel, Idurre. 2019. *Trikua esnatu da*. Susa
- > Azurmendi, Joxe. 1992. *Espainolak eta Euskaldunak*. Elkar.
- > Sagastizabal, Marina. 2020. *Hiruki gatazkatsua*. Susa.
- > Vázquez, Violeta. 2020. Contar lenguas. *Otros diálogos* [argitalpen elektronikoa], 10. Hemen eskuragarri: <http://bit.ly/3WPBHFw> (2022-07-10ean kontsultatua)
- > Uranga, Belen eta Aierdi, Xabier. 2021. Jatorri atzerritarreko biztanleen hizkuntzak, hizkuntza-bizipenak eta jarre-rak Gipuzkoan. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 119, 59-84.
- > Uranga, Belen. 2022ko abenduak 13. Elgoibarko hizkuntza-aniztasunaren mapa. Datuen azterketa. Immigrazioko biztanleriaren jatorriaren araberrako hurbilketa. [Ikerketaren aurkezpena] Soziolinguistika klusterra.
- > Uranga, Belen. 2022. *Elgoibarko hizkuntza-aniztasunaren mapa. Datuen azterketa. Immigrazioko biztanleriaren araberrako hurbilketa*. BAT Soziolinguistika klusterra.





ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO